



Biodiversidad F.S.P Fundazioaren dirulaguntzen deialdia, azpiegitura berdea bultzatzen duten programa eta proiektuak laguntzeko, ezagutza sortuz. Eskualde Garapeneko Europako Funtsarekin (FEDER) batera finantzatuta

Deialdiaren xedea:

Laguntzak ematea natura, biodibertsitatea eta azpiegitura berdea babesteko eta kontserbatzeko ezagutza zientifikoa sortzen eta aplikatzen duten proiektuei; betiere, genero-berdintasuna eta aukera-berdintasuna zeharka integratuz. Laguntza horiek lehiaren araubidean, araudi, plan eta estrategia nazionalen esparruan emango dira.

Finantzatu beharreko lerroak eta jarduerak:

- a) Azpiegitura berdea, konektibitatea eta leheneratze ekologikoa garapena.
- b) Lurren desertifikazioa eta degradazioa.
- c) Energia trantsizioa eta lurreko eta itsasoko biodibertsitatea.

Doikuntza, baterako finantzaketa eta gauzatzeko epea:

Eskaera bakoitzeko emateko zenbatekoa gutxienez 200.000 euro izango dira eta gehieneko zenbatekoa 400.000 euro izango dira. Betiere, laguntzaren gehieneko zenbatekoak ezingo du gainditu aurrekontu osoaren %40.

Proiektuek hiru urteko iraupena izango dute gehienez, eta ezingo dira hasi deialdia ebazten den data baino lehen.

Erakunde eta lehenetsitako ikerketa-lerro bakoitzeko proposamen bat onartuko da gehienez.

Eskaeren aurkezpena::

Webgunearen bidez telematikoki aurkeztuko dira: https://fundacion-biodiversidad.es/convocatorias_feder/convocatoria-de-ayudas-feder-para-el-impulso-de-la-investigacion-en-infraestructura-verde/

Eskaerak aurkezteko epea:

Eskaerak aurkezteko epea **2025eko otsailaren 20an** bukatuko da.

Barne-prozedura:

Erakunde eskatzaile (koordinatzaile gisa jardungo duena) eta ikerketa-lerro bakoitzeko, gehienez, proposamen bat onartuko da ebaluatzeko.

Eskaera Euskal Herriko Unibertsitatetik aurkezteko, interes-adierazpena Ikerketaren Arloko Errektoreordetzara bidali beharko da (igz.estatukodeialdiak@ehu.es). Horrela, ikerketa-lerro bakoitzeko eskaera bat baino gehiago egonez gero, Ikerketaren Arloko Errektoreordetzak jasotako eskaera guztiak aztertuko ditu, lerro bakoitzeko eskaera bana leheneste aldera.

Interes-adierazpenak igz.estatukodeialdiak@ehu.es helbide elektronikora bidali beharko dira. Epea adierazpena bidaltzeko 2025eko otsailaren 11ra arte zabalik egongo da (egun hori barne).

Interneteko helbidea: <https://fundacion-biodiversidad.es/>

GARRANTZITSUA:

Erakunde eskatzaile (koordinatzaile gisa jardungo duena) eta ikerketa-lerro bakoitzeko, gehienez, proposamen bat onartuko da ebaluatzeko.

Laguntzaren gehieneko zenbatekoak ezingo du gainditu proiektuaren aurrekontu osoaren %40.

Ikerketa-taldeko kideek urtean ikerketan, gehienez, 1.000 ordu jardun dezakete. Zenbateko horri kendu behar zaizkio beste proiektuetan emandako orduak, baita irakaskuntzatik kanpo bideratutakoak ere.

Informazioa gehiago:

Honexek dira UPV/EHUko datuak eskaera betetzeko:

- IFK: Q4818001B

- **Sozietate-lizena:** Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)
- **Tfnoa:** 94 601 80 08
- **Egoitza soziala:** Sarriena auzoa z/g (48940, Leioa – Bizkaia)
- **Helbide elektronikoa:** igz.estatukodeialdiak@ehu.es

Harremanetarako

UPV/EHU:

Tfnoa.: 94 601 80 08

Helbide elektronikoa:

igz.estatukodeialdiak@ehu.es

Biodiversidad Fundazioa:

Tfnoa.: 91 121 09 20

Helbide elektronikoa:

proyectos@fundacion-biodiversidad.es

webgunea: <https://fundacion-biodiversidad.es/contacto/>